

egizu bidaiia gorriarekin

hartu parte, 6.000 euroko zozketan ikasketa bidaiarako
(gutxienez 20 ikasle, 18 eta 26 urte bitartekoak)
Epea maiatzaren 31ra arte
Oinarriak eta formularioa, www.bbk.es orrian



BBK 26 =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
Legia Gordailua: BI-85-93
ISSN: 1577-9035

beartain

2005ko MARTXOA
75. zkia. DOHAIN

Olatz Karro

"Epaiketa irabazita
daukagu; sententzia
beste kontu bat da"

Korrika Mahatserrian

Narancoko beteranoak

Aitor Zuberogoitia






Patakon txakolindegia

*Mahatsorriak zeozergaitik ziran mahatsorri. Baserri guztietan ezin falta ziran mahastiak eta parrak. Txakolindegiak, nonon. Uribarriko txakolindegi zaharretarik ezagunenetakoa zan Patakonena. Matiko kaletik gorantz hartuta Axerrota bidea baino arinago ei egoan. Inguruan hiltegia ei eukan. Patakon ezizena bertako bizilagun batena zan, Larrabetzuko lapur famatuaren familiartekoa edo. Jakina danez, Larrabetzuko Patakonen gainean makina bat istorio zabaldu ziran lapur ona izan zalakoan. Hortixe ei dator esaera zaharra: **Patakon, Patakon, dekonari kendu, ez dekonari emon.***

Argazkia 'Begoña' liburutik hartu dogu, Santutxuko Mintza Taldeak (AEK) eginekoa.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Mahatsorriok be bai!	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta euskerea	10	▶ Mandoia mendia	27
▶ Narancoko beteranoak	12	▶ Aitor Zuberogoitia	28
▶ Elkarrizketa: Olatz Karro	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19		

Ongo Bertin leidute pentsau lei hamengo jentie lehengo ixteko prisie euki dabela betik. Aberri egune-
edo ein bier dala, gu lenengoak. Han mendidxe dago-
ala ondiñokarren inor puntera igon barik, hamen goaz
gu lenengo.
Da egidxe ixingo da, ze, Aste Santuen kanpora martxa-
teko bere, hamengoak eskapaten daurie inok baino ari-
nago. Aitu ze prisa euki daurien hemen bakazinotan
martxateko, ze Korrika laburtu bere egin daurie arinago
pasau daitten, aber ez badoskun denborie emoten
maletak eitteko-edo.
Beste batzuek barriz, martxateko baino prisa gehiago
eukitten daurie hona etorteko, baie etorri ta ensegidan
gure dauriez bueltan eroan, hau da hau ba! Denak
eskapau guren da batzuek hamen lotu gure, ta ezin.
Baten batek deko interesa ganera hamen inor lotu ez
daitten edo.

Munduen desertizaziñoa dagoela diñourie zientifikoak,
iguel ez dogu sinistuko ez badogu ikusten, baie hamen
pasaten dago, baie ez dau emoten hori dana kanbio kli-
matikoagaittik pasaten danik, ze klimie ona ixen nahi
txarra ixen, bardin-bardin desertizaten da. Da ez da
gauze bat bakarrik bakaziñoetan pasaten dana, ze nor-
malmentien bere gero ta desierto handiagooa deko-
gure hemen. Gero ta jende gitxiago ikusten da, jentie junta-
teko lekuetan lehen hamar egoazen lekuen oin bi
dagoz, da juntateko lekuek gero ta gitxiao.
Lenengoak ixin gure dogu gauze askotan, ta aber
lenengoak ixingo bagara egon ez dan lekuen desiertoa
eitten.
Laster baten honeik Bertonekoak dunan azpidxen ibili-
ko direz zer kontau topaten, baie topauko daurie zer
kontau.
Ta zuek leidu, oasis baten ure edaten dan modure.

Firmatue: Desiertoko Lukidxe

GURE BAZTERRAK

ELIZALDE ETA ELIZONDO KALEEN ESANGURAREN INGURUAN



"Eliza" berba oinarri hartuta, hainbat kale ikusi geinkez euskal herrietako kaleetan eta osterantzeko toponimoe-tan. "Eliza" berbagaz batera, bizkaieraren "elexa" eta "eleiza" aldaerak daukaguz. Bi-biak emon ditue izenak Bilboko kaleetan ipinteko. "Eliza" zuztarretik kale bi idoro geinkez Begoñako eleizatean. "Elexa" eta "elei-za" aldaerak, barriz, "x" dun formak eta "j" dunak ditugu, eta horrelako bat daukagu "Elejabarri" Bilbon bertan, bai eta "Elexalde" Bizkaiko hainbat herritan.

Horretara, bada, Begoñako eleizatean, zehatzago, Begoñako basilikatik hur, badogu "Elizalde" izeneko kalea. Begoñako kanposantu zaharraren aldamenen hasten da, eta Ugaz erretorearen kalea eta Begoñako Andra Mari kalea batzen ditu. Aurreko lerroaldean esan legez, kale honek adierazoten dau kalea eleizatik hurrean dagoala. Begoñako eleizatean, baina Santutxu auzoan, badogu Elizondo kalea. 1983. urtea arte, kale horren izena Díezen kale partikularra zan, eta harrezkero Elizondo izena hartu. Kaleak Iturriaga eta Hartsuagaren kale partikularra batzen ditu. Izena Nafarroako Baztango Elizondo herriari dario; horrezaz gainera, eleizaren ondoan dago, eta zio biak eragina izan eikien, izen hori jartzeko.

GOTZON LOBERA REVILLA



Korrika

Mahatsorriok be bai!

Milaka euskaltzalek karran egin zuten martxoaren 20ko goizean gure auzoetako kaleetatik gora eta behera euskararen aldeko mezua zabaltzen. Korrikaren hamalagarren edizioa zen eta haren leloari eutsiaz, mahatsorri askok ozen esan zuten: 'ni ere bai' euskaraz ikasteko edo egiteko prest nago. Hona hemen Begoñako elizate zaharreko ibilbidearen bitakora kaiera.

Argazkiak:
Iñigo Azkona

Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
BI-85-98
ALE KOPURUA:
1.800




2318 KILOMETROA.- Korrika Atxuritik sartu zen Begoñako elizate zaharreko eremuetan. Inicativa Gitanako ordezkariak Komite Internazionalistetako kideei eman zieten lekukoa. Larreagaburutik Menendez y Pelayo kalera iritsi ziren. Goizeko hamarrak ziren. Karmelo ikastolaren parean Euskaria abesbatzakoek lekukoaren txanda hartu zuten eta, orduantxe gertatu zen ezustekoa. Korrika aurretik joian furgonetak bidea erratu zuten eta kilometro bat jan egin zuten. Horren ondorioz, Samasiku fanfarrekoak lekukoa hartu barik gelditu ziren.



2319 KILOMETROA.- Karmelo kalean, Sorgintxuloko gazteek hartu zuten egurrezko testigua. Okupazioaren aldeko deiadarren artean eta atzetik jende multzo handi bat segika zetorrela egin zuten euren kilometroa.

2320 KILOMETROA.- Iturriaga kalean preso politikoen senideen eskuetara pasatu zen lekukoa. Orduan euskal presoaren aldeko oihuak nagusitu ziren. Kilometrora jendetsuena izan zen.



2321 KILOMETROA.- Kiroldegiaren aurrean Berbalagunakoek hartu zuten Korrikaren burua. Euskara ikasten dutenei berba egiteko aukera ematen die proiektu horrek. Julian Gaiarre kaleraino egin zuten karran.



2322 KILOMETROA.- Otxarkoagarainoko tartea zati bitan banatu zuten. Lehenengo, Barris taldekoek eraman zuten lekukoa. Geroago, Bagabiltza eta Txurdinagako auzoa.




2323 KILOMETROA.- Otxarkoagako plazatik Birjinetxe-rainoko zatia Peña Pa Ya konpartsa-koen kontura joan zen. Horretarako ibilgailu adarduna atondu zuten. Eta belaunaldi berriei laga zieten lekukoa. Athleticcek legez, horiek ere harrobia lantzen dute!



2324 KILOMETROA.- Birjinetxetik Zabalbideraino Txurdinagako institutuen esku joan zen lekukoa. Jendea tropelka atzetik eta... etorkizuna aurretik.

2325 KILOMETROA.- Zumalakarregi etorbidera ase-guru etxeetako langileen altzoan ailega zen testigua. Tunelean ozen entzun ziren euskaren aldeko aldarriak.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak



PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

A
R
E
R
E
R
E
R
E
R
E
R
E
R

2326 KILOMETROA.-

Tuneletik irtenda, Korrikako lekukoa BBKko LABeko langileen eskuetara igarozen. Behargin askok gure hizkuntzaren aldeko konpromisoa erakutsi zuten.



2327 KILOMETROA.-

Zumalakarregitik behera, Uribarriko sarbidearen eta Udaletxearen arteko zatia, Deia egunkariak hartu zuen. Argazkian, Iñaki Gonzalez zuzendaria Korrikaren buru.



2328 KILOMETROA.-

Udaletxe aurrean, Bilboko Udaleko zinegotzi talde batek jaso zuen lekukoa. Campo Volantinetik barrena abiatu ziren, Deusturantz.



2329 KILOMETROA.-

Goizeko hamaikak baino apurtxo bat beluago, Korrika 14k azken kilometroa egin zuen Begoñako elizate zaharrean. Portuko Agintaritzak hartu zuen. Ordubeteko ibilaldi zoro, eder eta jendetsua amaituta zegoen. Korrika urte bi berru etorriko da atzera. Bitartean, eutsi geureari!



Kirolak
Punta-puntako kirol markak



Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01

gehiengoa

aurrera joaten jarraitzeko

bidezko bidea, burujabetza eta eskubide sozialak bermatzeko

Madriren, euskal gizarteari ezetz esan ziguten, euskal gizarteak baietz esango du apirilaren 17an



BEGOÑA ETA EUSKERA


Aberri Eguna 1932an ospatu zuten lehenengoz. EAJk sortu zuen jai hori, Sabino Aranak 50 urte arinago abertzaletasuna deskubritu zuela gogora ekartzeko. Eguna hautatzerakoan, Bepizkunde Domeka alegia, euskal aberriaren suspertzea irudikatu nahi zuen. Ospakizunik handiena Abandon egin zuten baina biharamunean, pazkoa astelehenean, Begoñak hartu zuen lekukoa.

Lehenengo Aberri Eguna eta Begoña

'Ilunpe espainolistetatik' atera ei zen Sabino Arana 1882 urte aldean. Harrez gero, lan eskerga egin zuen abertzaletasuna zabaltzeko harik eta 1903an hil zen arte. 1932an, EAJk, Sabino Aranak sortutako alderdiak, Aberri Eguna ospatzea erabaki zuen. Bepizkunde domeka hautatu zuten horretarako. Gatibu zetzan aberriaren suspertzea irudikatu nahi zuten, fundatzailerak abertzaletasuna aurkitu zuenetik 50 urte geroago.

Lehenengo Aberri Eguna hura ospakizun handia izan zen. Domekako ekitaldiak Abandon egin zituzten, gehien bat, baina biharamunean, pazkoa astelehenean, Begoñak hartu zuen protagonismoa. Domeka hartan, goizean goiz, jendea andanaka hasi zen Bilbora ailegatzen. Bergaratik, Zumaia, Donostiatik, Durangotik, trenak lepo beteta iristen ziren Atxurira. Beste herri askotatik -Gasteiz, Iruña, Lekunberri, Aramaio, Laudio, ...- ibilgailuetan heldu ziren Bizkaiko hiriburura. Ezkerraldeetik ere tropel handiak hurreratu ziren Bilbora.


Baina beste bide batzuk be erabili zituzten. Bermeotik, barbarako, oinez egin zuten bidea mendigoxaleek, Sollubeko tontorrean sua iziotutakoan. Eta kostaldeko herrietatik barkuetan etorri ziren arrantzaleak. Ondarroa, Bermeo, Lekeitio, ... itsaso lodiarri jaramonik egin barik 36 bapore sartu ziren Ibaizabaleetik gora Bilboko Udaletxeraino.



Lehenengo Aberri Eguneko kartela.

Arrantzaleen baporeak Campo Volantinen parean

Lehenengo Aberri Egun hartako ekitaldiak Bihotz Sakratuan hasi ziren. Goizeko hamar eta erdietan manifestazioa hasi zuten Gran Viatik barrena. EAJko burukideak joiazan buruan, euren artean Luis Arana Goiri -Sabinoren anaia- eta Jose Antonio Agirre, geroago lehendakaria izango zena. Hamabiak aldera Albiara ailega zen manifestazio multzotsua. 65.000 lagun batu zirela esan zuen EAJk. Bertan ekitaldi politikoa egin zuten Sabin Etxearen aurrean. Amaitzeko, Euzko Abendaren Ereserkia abestu eta sakabanatu ziren. Arratsaldean ikuskizun bana antolatu zuten



Ohorezko aurrekua Begoñako plazan. Behean: Astelehenean Begoñan egindako jaialdia.


tsuekin batera, Euzko Abendaren Ereserkia ere abestu zuten.

Meza ostean, Begoñako errepublikako plazan, ohorezko aurrekua. Dantzariak, Jesus Zabala eta Julian Estevez. Dantzara ateratako lehenengo andrea Conchi Gangoiti izan zen eta atzesku Julia Muxika ibili zen. Biak ala biak, Emakume Abertzaleen Batzako burukideak. Ondoren, gorularien eta ezpata-dantzarien agerraldia. Ezpata-dantzariak Juventud Vasca elkar-tekoak ziren eta hirurehun bat izan ziren.

Arriaga eta Campos Eliseos antzokietan eta Euskalduna frontoian.

ASTELEHENA BEGOÑAN

Lehenengo Aberri Egun hark egun bat barik bi iraun zuen. Bigarren egun horretan Begoñak hartu zuen protagonismoa. Goizeko hamaiketan emakumeen meza egin zuten basilikan. Elizan, beste euskal kantu erlijio-



Ikusle, milaka lagun, "Begoñako jaietan batzen diren beste", zehazten du kronika batek. Argazkietan ikusten den legez, euria be egin zuen baina hala ere jendetza itzela agertu zen Begoñara.

Hurrengo ekitaldia Artxandako kasinoan izan zen. Bertan bazkaltzeko hainbeste jeltzale batu zen, Luis Arana Goiri buru zeukatela. Luis Arana sasoi hartan Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria zen. Bostehunen bat lagun elkartu ziren. Arratsaldean, erromeria egin ei zuten Artxandan.

Horrelaxe amaitu zen lehenengo Aberri Eguna. Prentsa idatziak hiru alderdi nabarmendu zuen: manifestazio jendetsua izana, istilurik gertatu ez izana eta emakumeen parte hartze handia.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99




MAHATSORRIAK NARANCO MENDIAN ESKALATZAILE

Testua: *Itxaso Perez*

Iker Pou, Miguel del Tio, Eneko Pou eta Pedro Udaondo Narancon. Argazkia: Pouanaiak.com

Asturiaseko Naranco edo Picu Urriellu mendia ikur bat da eskalatzaile askorentzat. Oraintsu bete dira lehenengo igoera egin zenetik ehun urte. Gu mahatsorri bigaz egon gara, biak ala biak mendi horrekin lotura estu eta berezia daukatelako. Pedro Udaondoaren bizitza Picu Urriellurekin erabat lotuta dago. Ehun igoera baino gehiago egin ditu bere bizitza osoan 1954tik. 70 urteko gizon hori ez da eskaladarako zahartuta sentitzen eta ederto erakutsi du Picu Urriellu berriz ere igozen lehenengo eskaladaren ehungarren urteurreneko ekitaldi ofizialetan. Han Balta Zapaterorekin elkartu zen.

Pedro Udaondo Bilbon jaio zen 1934eko ekainean. Bilbo Zaharrean bizi izandakoa, mendizaletasuna gazte-gaztetik garatuta zeukan. Garai zailak ziren, eta mendira joateko, eta behar zen materiala eskuratzeko bide bi baino ez zeuden: Falagekoa izatea edota Elizatik joatea. Lehenengoa hasieratik baztertuta, San Anton elizako Acción Católica taldearekin hasi zen, lagun batzuekin batera. Talde horretako jendeak mendira eraman eta gidatu egiten zituzten gazteak. Bertoko mendietara joaten ziren gehien bat: Anboto, Gorbeia, baina adin batetik aurrera ez zuen nahikorik eta apur bat era "independienteagoan" ibiltzeko Juventus mendi taldean izena emateko gomen-datu zioten, mendi talde hori ere apaizena zela.



tzeko txapelketak, zeharkaldiak, mendi altuagoen txapelketak.. Eta horretan zebilela bere benetako zaletasuna harrizko mendiak zirela igarri zuen, eta

ez larreak. Horrela, 18 urterekin eta Barakaldoko adiskide baten laguntzaz Villasana de Menako Diente del Ahorcado igo zuten, sokaz eta eskalatzen. Hor ikasi zuen ere 'erraplatzea' zer zen. Hango egunekoak 'engantxatu' egin zuen eta Juventusen eskalatze oinarriak nork irakatsiko bila ibili ziren, baina ez zegoen inor. Beraz, beste gizon baten laguntzaz Atxartera joan eta hantxe trebatzen aritu zen, gizon hura gaixotu zen arte. Beste erremedio-rik ez eta azken aukera gisa Falangeko mendi talde batzuetara jo zuten. Haiekin Gorbeialdeko Atxetara joan eta ikastaroa jaso zuten. Hortik aurrera, beren kabuz hasi ziren eskala-tzen. Hasieran, Durangaldeko mendietatik, gero, Urbionen, San Lorentz... eta 1955 urtean Europako Pikoetara joan ziren. Hainbat bide egin ostean, Picu Urriellu igotzea erabaki zuten.

ANTZINAKO MATERIALA

Zuntz-kalamuzko sokak, fabrikari egindako burdinazko iltzeak eta mosketoiak, gomazko abarketak.... gaur egun erabiltzen den materialarekin zerikusirik gutxi, alegia. Horrela, 1955eko uztailan Picu Urrielluko tontorrera iritsi ziren, ekaitz baten erdian. Lekuarekin liluratuta, urte hartako irailean itzuli zen Mari Jose Aldekoa eta Jaime Cepedarekin. Pedro emakume harekin joate-

koa zen, baina garai horietan gizon eta emakume bat bakarrik mendira joatea 'bekatua' zenez, Jaime bere lagunari laguntzeko eskatu zion.

Inguruetan hainbat hormatan ibili ostean, irailaren 21ean Picu Urrielluko Ekialdeko hormara hurbildu ziren, eta 'Cepeda' bidea zabaldu zuten, egun, Ekialdeko hormako bide klasikoetako dena.

Egun batzuk geroago, Mari Jose eta Jaime joan ziren eta Pedro Peña Santara joan zen bera bakarrik. Etxera bueltatu, eta soldaduska egin behar. Hala ere, baimena eskatu eta Angel Landarekin batera Picu Urriellura itzuli zen berriro. Egun pare bat eta erdi eman zuten Espinosatik iristen, hiru motxila zera-matelako janariz beteta: kalloak, giharra, kontserba lata pilo batekin... ez orain bezala, lau pastilla eta barratxoak besterik ez dela eramaten.


Urriellura Iparaldeko hormatik sartu ziren Regil anaien bariantetik tontorraino, neguan egindako lehenbiziko igoera izango zela jakin barik. Hura 1956eko martxoaren 8 baten izan zen.

BULTZADA HANDIA

Zer sentitu zuten galdetuta, une horretan ezer berezirik ez erantzun digu Pedro Udaondok, konforme zeudela egindakoarekin, gustura, besterik ez, ez zirelako egindakoaren garrantziaz ohartzen. Denbora igaro ahala bai, orduan ikusi dute horren garrantzia, euskal alpinismoarentzat zein Estatukoarentzat bultzada handia izan zela, bere ustez, 'seaskan' zegoelako.

Umiltasun horrekin, soldaduskara itzuli eta berriz Peña Santara joan ziren bide berri bat zabaltzera. Hortik aurrera beste ziklo bat zabaldu zen Pedro

Udaondoren bizitzan eta Pirinioetan eta Alpeetan hainbat bide klasiko eta beste garrantzitsu batzuk egin ostean, Himalayara, Patagonialdera edota Andeetara joateko aukera eduki zuen. Izan ere, lantegian baimenak eskatzea ez zen batere erraza garai horretan, gainera hiru seme-alaba hezi eta hazi beharrak mugatzen zion mugimendua.



Pedroren ustez Urruielluk ez dauka ezer berezirik. Mendi esanguratsua da. Zergatik? Bere garaian Espainiako Mendi Federazioko irudia izan zen, baita garai hartako Mendi Garaietako Talde eta Eskolaren irudia ere bai. Geroxeago beste federazioak sortzen hasi ziren, hasieran Espainiakoaren

menpe. Mendi isolatua da, monolitikoa. Ez ei da mendi 'zaila'. Aukera ezberdinak dauzka, Hegoaldetik bidetik errazena, eta gero, Mendebaldetik eta Iparraldetik zailenak. Hasten den jendearentzat bezalaxe, Josune Bereziartua edota Pou anaiatzat aukerak hain zuzen.

LEHEN MENDEA

Pedro Udaondo oso ezaguna da Picu Urrielluren aterpetxean. Pertsona esanguratsua Europako Pikuetan egia esan, hainbeste igoera egin ostean: Igoerez gain, erreskateren baten parte hartuta dago, zorigaitzekoa gainera. Bere ospea irabazita dauka, zalantzarik barik, baina horrek ez dio kendu bere umiltasuna eta pertsona sanao izatea.

Ez da bere bigarren etxea, baina gutxi falta zaio. Bertan materiala, lekua eta lagunak dauzka. Lehenengo igoeraren mendeurren ospakizunetarako gonbidapena jaso zuen eta ezin ezetz esan. 2004eko abuztuaren 4tik 8ra bitartean egin ziren ekitaldiok. 1904eko abuztuaren 5ean burutu zen lehendabiziko igoera hori, eta egun berean baina 100 urte geroago berriz igo zen Pedro Udaondo Asturiaseko Mendi Federazioko beste bi lagunekin batera kordada ofizialean. Taldetxo hori 1904an Marques eta Cainejok (bertako artzaina) egin zuten bezala 'Pidal Cainejo' bidetik igo zuten. Ezustea hartu zuen Pedrok bidearen oinarrian Guardia Zibila topatzean, baina oraingo honetan ez debekurik ez bestelako eragozpenik ipintzeko, baizik eta bidean kordada ofizialekoa ez zen beste jendea ez hasteko bidean kordadarenak baino lehenago. Lagun-tzeko, beraz. Igo, igo zuten eta tontorrean jende multzo txiki

urretxindorra
megadenda **9'30etatik 20'00etara**

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 26 (48011 Bilbo) urretxindorra@megadenda.com
Tfnoa: 94 4240228 www.megadenda.com

SAN TXU
EUSKAL ESKOLA

iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet,9 Santutxu www.megadenda.com Arbidea,21 Txurdinaga
4731460 4117656

bat bazegoen, euren artean beste eskalataile maha-tsorri bat, geroxeago aipatuko duguna. Tontorrean derrigorrezko argazkia atera eta gero, behera. Aterpetxean plaka bat aurkeztu eta antezlan txiki bat egin zuten bertako Mendi Federazioko kideek. Era berean, Pedrori bere ibilbidea errekonozitu zioten, omenaldi txikia eginez.

SASOI BETEAN

70 urterekin eskalatzen segitzearen sekretua ez da sekretua. Pedroren ustetan zaletasuna mantentzea besterik ez da. Beste batzuek arrantzan egitea gustuko duten bezalaxe berak eskalatzen ibiltzea du atsegin. Besterik ez dago. Duela urte bi Mendebaldetik igo zuen Picu Urriellu, alderdirik zailenetik, eta aurreko urtean, 'Murtziana' bidetik igo zuten. Kordada



lagun, gazte bi. Pedrok onartzen du egun ez dela kordadan lehenengoa ipiniko, ahalmenak berdinak ez direlako, beste barik. Hori bai, bere adina kontutan hartuta, ez da gauza makala.

Hala pentsatzen du Pedrok ere Baltasar Zapaterok egindakoari buruz ere. Izan ere, gazte honek Picu Urriellu igo zuten urteurrenaren egun berean Hego-

aldeko bidetik eta tontorrean bat egin zuten. Baina berezia izan zen igoera hura ere. Baltak (holan deitzen diote bere lagunek) paralisi brakial bat dauka ezkerreko besoan, beraz, eskalatzeko ezin du erabili. Pedroren ustez eta bere hitzetan, 'fuera de serie' bat da Balta, eskalatzeko berez hiru euste-puntu beharrezkoak izaten dira laugarrena bilatzen den bitartean. Orain urte batzuk gertatutako anekdotata bat kontatu digu. Mendebaldetik hanketan paralisia zeukan pertsona bat 'igo' zuen tontorre-raino. Eta hola, kaxotxen artean ipintzen du, meritua kendu barik, baina meritua erdia, izan ere, pertsona hori igo zutelako gehien bat. Baltaren kasua ezberdina da, ikusiko dugunez, berak egin zuelako bide osoa, bere kordadako beste bat bezalaxe.

BALTA ZAPATERO, MUGAK APURTZEN

Balta Zapatero, historia honen beste protagonista, santutxuarra da. Mendizalea, eskalatea ere gustukoa du, horretan horrenbeste aritu ez bada ere. Pertsona lasaia baina mugitua aldi berean, gauzei aurre egiten dien horietakoa. Picu Urriellu igo zuten lehendabiziko igoeraren mendeurren ospakizunaren egunean, 3 apoioren laguntzaz baliatuz bakarrik. Ez zen inongo apustua. Ezkerreko besoan paralisi brakiala dauka. Benetan zeozer gura denean, lortu ahal da, oztopo guztien gainetik... Itxura hori hartu diogu ekimen honi. Txikitako ilusioa zen. Umetan gurasoekin mendian ibilitakoa, bere logela Narancoko eta Cervinoko argazkiz beteta eduki du. Lehenago aipatu arazo fisikoa zela medio ez dio inoiz bere buruari planteatu halako eskalada bat egitea. Burua izan du muga, gero ikusiko dugunez.

Iazko abuztuan Picosera joan zen Balta Arroletza mendi taldeko lagun batzuekin alde batetik, eta bestetik eskalatzen iaioak diren Astilleroko beste bi mutil gazterekin. Baltaren esanetan, mutil horiek ziurtasuna eman zioten kordadari. Picu Urriellura inguratu zen apur bat probatzearen. Artean zailtasun txikiko eskaladak eginak zituen, baina inoiz ez Picuak daukan bertikalitatekoak. Aukera sortu eta aprobetxatzea erabaki zuen. Bertan lo egin eta goizaldeko laueta jagi eta Hegoaldeko bidearen oinarria abiatu ziren, lehenengoak izateko asmoz. Horrela lasaiago igoko ziren. Hegoaldekoa biderik errazena da, samurrena. Hasieran erabakita zeukaten 'Pidal Cainejo' bidetik igotzea, 'errazenetakoa' delako. Azkenean, Hegoaldekotik joan ziren. Bertan, oinarrian, hastapeneko zatian daude zailtasunak, eskalada bertikalagoa. Zirko batetara iritsi ostean, errazagoa da.

4etan altxatu eta gauaz abiatu oinarriantz. Oinarria hurbildu zirenerako, 15-20 bat pertsona zeuden zain igotzen hasteko. Eguna esnatzearekin batera hasi ziren igotzen. Orduantxe konturatu zen Balta non sartu zen...

Ez zegoen ohituta katu-oinak erabiltzen, eta esku bakar batez harriari heldu behar izatea arazoa zen. Baina apurka-apurka ere konturatu zen hormako zulo edo bazterrik txikiak ere balio zuela oinaren punta txikia sartu eta gorako bultzada ema-

teko. Ez zen arazo bakarra izan. Harria hotz-hotz zegoen eta eskuaren sentsibilitatea galdu ere egin zuen. Zelan heldu zen ere galdetzen du bere buruari, izan ere, teknikarik ez, eta ikasitako ia dena bidean ikasi zuen. Pausoz pauso, astiro-astiro gora joan zen eta aldi berean gero eta konfiantza gehiago hartuz eta erosoago sentituz ere. Hasierako horma bertikal horren erdian, dibertitzen hasi zen. Horretan zetzan gauza... Erritmo motela baina ez geldoegia, ezta gutxiago ere. Dena zuzen gora, poliki baina urrats bakoitza ziurtatuaz.

Ilusioak bultzatuta joan zen Picura, osterantzean ez lukeela egingo uste du. Gainera, inguruko laguntza gutxi aipatu digu. Sekretupean gorde nahi baina ezin, batez ere jendeak esaten ziolako "baina zelan egingo duzu hain gauza handia zuk?" eta halakoak entzun behar izan dituelako, laguntzako hitzak baino. "Nora zoaz?" esaten zioten bakoitzean Balta bere burua konbentzitzen zuen ez joateko. Eta bere mendi taldeko lagun bati esker, behin eta berriro animatu diona bertara joaten eta igotzen, hari esker aurrera jo zuen igoerarekin.

Bideari segituaz, tontorrera iritsi zenean izugarritzko poza sentitu zuela esan digu, oso sentimendu berezia. Norberaren helmuga beteta ikusteak eta baita txikitako ilusioa bete izanagatik ere. Jende askori sinesgaitza egin zaio, eta bada mendi taldean berba egiten ez dionik ere, amorratuta-edo. Tontorrean derrigorrezko argazkiak atera, behe laino artean, eta gero, jaitsi, errapela eginez. Arazorik ez jaisteko, erabat ase, pozik.


AURRERA BEGIRA...

Picu Urriellura berriz itzuliko den ez daki, baina halako gehiago egiteko gogoia piztu zaio. Middi d'Osseau aurton igotzeko aukera aztertu du. Picu Urrielluko baina eskalada errazagoa da Middikoa. Hiru tximinia dauka, bat zailagoa dena, baina bide errazagoa dena berez. Beste ilusio batzuk badira Tanzania joan eta Kilimanjaro eta Neru mendiak igotzea. Eta Cervino. Benetako ametsa. Prestakuntzaz, eguraldiaz eta besokoz gain bestelako baldintza batzuk sartzen dira. Baina ametsak amets, ahalegina egin, egingo du. Horretan dago.

Olatz Karro

"Epaiketa irabazita daukagu; sententzia beste kontu bat da"

Olatz Karro Soto del Real espetxeko isolamendu modulutik atera berria da lau urtez behin-behineko espetxealdian egon ondoren. Jarrai-Haika-Segi auzian prozesatuta dago. Epaiketak irauten duen bitartean aste barruan Madrilan egon behar du. Gainerako gazteentzat bezalaxe, berarentzat ere badago fiskalaren eskakizun izugarria: hamalau urteko kartzela zigorra. Bere delitua? Gazte mugimenduan ibili izana. Euskal Herrian astean egun eta erdiz bakarrik egon arren berarekin egoteko tartetxo bat egin digu hogeita bederatzita urte bete berriak dituen mahatsorri horrek.



Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Askona

Zerk animatu zintuen gazte mugimenduan murgiltzeko?

Gazteok arazo piloa dugula ikusi nuen eta aisialdian, arlo sozio-ekonomikoan, kulturalan,... gazteok arazo handiak ditugu gazte izateagatik. Gazte taldeetan antolatzea beharrezko ikusten nuen, egoera horri aurre egin ahal izateko eta alternatibak bilatzeko. Aisialdiari dagokionez, auzoan egon diren taldeetan parte hartu izan dut. Kontsumismoak eta gizarte kapitalistak ematen digunaz gain jendeak beste aisialdi mota bat lan dezan, autosufizientzia garatzeko, kolektibotasuna lantzeko, euskara eta euskal kultura lantzeko. Bestelako maila batean ere parte hartu izan dut, esaterako, gazte konpartsetan jai herrikoi eta partehartzaileen alde. Azken batean gazte mugimendua guztiz beharrezkoa da sistemari eta zapalkuntza guztiei aurre egiteko. Gazteok antolatuta alternatibak sor ditzakegu eta beste gizarte eredu bat landu.

Zelan ikusten duzu gazte mugimenduaren bilakaera?

Urteetan zehar gazte mugimendua garatzen joan da, gizartea bera aldatzen joan den bezala. Eta gainera lortuak egon diren heinean gazte mugimendua bera ere gero eta indartsuagoa da eta gero eta aukera gehiago dago aurrerapausoak ematen jarraitzeko. Duela hamar urte baino gehiago hasi zen auzoan gazte mugimendua lantzen eta kriston pausuak eman dira. Santutxun bertan ikusten dugu, adibidez, Sorgintxuloren kasuan zenbat jende bildu den. Eta Segi gazte erakundeak berak ere gaur egun duen indarra, nahiz eta kriston ostiak jaso dituen. Aurre egiteko gaitasuna zelan erakutsi duen eta zelan jakin duen egoera berrietara moldatzen. Belaunaldi berriak gehitu dira, jakinda koste pertsonal handia egon daitekeela tartean baina jendea gogotsu dabil eta horrek asko poztzen gaitu.

Lan eta konpromiso handiak hartu dituzu gazte mugimenduan?

Gazte esparrutik borroka beharrezkoa dela ikusten duzu eta antolakuntzak indarra ematen digu eta errealitatea aldatzen laguntzen digu. Beraz, konpromisoa hartu eta badakizu borroka

bere ondorioak dituela; berauek onartu ditugu eta hainbat esparrutan aurrera eraman, bai gazte mugimenduan zein ondoren kartzelan.

Zelan ikusten duzu gazte mugimenduaren etorkizuna?

Nik uste dut gazte mugimenduaren indarra gero eta ageriagoan geratzen ari dela. Bai diskurso mailan zein gero praktikan aztertuta, gazteon indarra aurrera doala uste dut gero eta era txukunago eta orokorrago batean. Proiektu politikak martxan daude eta gu kartzelan egon garen bitartean, esaterako Gaztesarea, gazte kontseilua...eta abarretan aurrerapauso nabarmenak eta oso sendoak gertatu dira. Gazte mugimendua oraindik asko dauka emateko eta emango duela uste dut.

Zuek izaten ari zareten epaiketa 18/98 makrosumarioaren aurrekaria izanda, zer uste duzue gertatuko dela?

Guzti honen ardatza 18/98 da berau baita oinarria eta gure epaiketa lehenago egin dute konturatzen zirelako guk lau urte beteko genituela eta beraien asmoa printzipioz gu kalera ez ateratzea izan da. Presaka ibili dira eta hori epaiketan islatu da. Epaietak gainezka egin die eta argi geratzen ari da antolakunde politikoak epaitzen ari direla. Eduki politikoa kristona izaten ari da epaiketan zehar. Hala, bai lekukoekin zein adituen aldetik eduki politiko osoa duen epaiketa burutzen ari da. Denbora aldetik ere asko luzatzen ari da, eta gure ustez guk epaiketa irabazita daukagu jada baina gero beste kontu bat sententziarena izango da. Beti interesen arabera izango dela uste dugu, dela interes politikoak zein beste edozein interes.

Zergatik zaude hain baikor?

Gu pozik gaude epaiketan agerian geratu delako Euskal Herria herri zapaldua dela eta herri honekiko konpromiso hartzen duen pertsona oro zigortu besterik ez dutela egiten. Argi dago interes eta egoera politikoaren arabera edozer gerta daitekeela sententzian. Gutariko batzuentzat hamalau urteko espetxe zigorra eskatzen dute eta beste batzuentzat hamar urte. Honez gain AVT-koek beste zortzi



urte eskatu dizkigute bakoitzari 'genozidioagatik'. Beraz, batzuentzat hogeita bi urte eta besteentzat hamazortzi. Dena dela ikusiko dugu zein den sententzia eta beti gogoan izanda sententzia gogorra izan daitekeela.

Epaietari buruzko gizartearen erantzunari buruz, zer deritoxozu?

Euskal Herria mugitu egin da Jarrai-Haika-Segiren defentsan maila batean eta oso pozik gaude alde horretatik. Hainbat gizarte esparru agertu da gazte erakundearen defentsan eta berezia egiten zaigu, gizartea mugitu da eta gainera espero ez genituen esparru batzuk ere. Adibidez, EAJren jarrera, azken batean, beraiek izan baitziren Y taldeak eta Jarrai lotzen hasi zirenak, eta orain EAJko

hainbat jende planteatzen ari da epaiketa hauek ez direla demokratikoak eta Euskal Herriaren aurkako eraso direla.

Zergatik dela uste duzu?

Beraiek hasi ziren Jarrairen kriminalizazioa lantzen eta orain maila batean beste dinamika honetan murgilduta daude, beraz, guk uste dugu mugitu dena azken batean gizartea izan dela, beraz, gizartea mugitu denez, EAJk berak ere bere burua mugitzera behartuta ikusi du. EAJ interesen arabera mugituko da gizartea dagoen lekura.

Zer da zuri leporatzen dizutena? Ez duzue akusazio zehatzik, ezta? Orain arte epaiketan atera denaren

arabera inputatuon aurka ez dago ezer ere ez. Epaiketa honetan gu akusatzen gaituzte baina akusatzen dutena azken batean gazte erakundeak da, eta zentzu horretan ari da dena jokatzen.

Ez dute froga zehatzik, beraz, zelan frogatzen ari dira esaten dutena?

Momentuz teoria eta hipotesien gainean ari dira UCIk eta Guardia Zibilak dituzten tesien inguruan, beraiek pelikula bat egin dute Ezker Abertzalearen funtzionamenduaren inguruan eta hortik doaz. Baina nire ustez nahiko agerian geratzen ari da guzti hori beraien asmakizun bat dela eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Hala ere, jakin badakigu Auzitegi Nagusia zirku

bat dena, beste epaiketa batzuetan ere ikusi denez. Beraz, zirku horren barruan gure epaiketa beste atal bat da. Gure ustez epaiketa honek duen berezitasuna da antolakuntza ereduaren aurka egiten dutela. Antolakuntza eredu konkretu baten aurka egiten dute.

Zelan bizitzen ari zarete epaiketa?

Zirku bat dirudi. Han daude denak eserita beraien togekin eta beraien esparruan. Bat-batean 'Eskubide zibil eta politikoen defentsan gazteria aurrera' zioten kamiseten kontuekin asko mindu ziren. Batez ere gure jarrera ikustean lehen egunean. Beraiek beharbada gazteri triste bat edo sentitua espero zuten kartzelan hiruzpalau urtez egon ondoren eta

gutziz kontrakoa aurkitu zuten, gazteri indartsu, alai eta borrokalaria batekin. Guretzako beste kideak ikusi ahal izatea eta beraiekin egon ahal izatea kristona izan zen eta irudi hori ez dute ulertzen espainolek. Honez gain itzultzaileekin ere ez dago seriotasunik, batzuek ez zekiten eta beste batzuek nahita egiten zuten txarto. Azken batean, beste eskubide asko bezala, hizkuntza eskubidea ere erabat zapalduta dago Auzitegi Nazionalean.

Epaiketa noiz amaituko den bada-kizue?


Ba ez, hasiera batean egiten zituzten prebisioak iraupenaren aldetik guztiz gaudituta daude. Ez dakigu noiz amaituko den baina luzerako doala ematen du, ikusiko dugu.

Zuri zer leporatzen dizute?

Haika gazte erakundeko kide izateagatik ETA erakundearen integratuta egotea. Horregatik eskatzen dizkit fiskalak hamalau urte eta AVT-ek hogeita bi.

Kartzelako lau urteko egonaldia-ri buruz, zer?

Esperientzia oso aberasgarria izan da, han dagoen jendearekin konpartitu duguna asko izan delako. Sartu eta euskal preso politikoaren kolektiboko kideak izan gara eta horrek lotura handiak ekarri dizkigu bai borroka loturak zein lotura pertsonalak. Egunerokotasuna konpartitzeak, gauza onak eta txarrak konpartitzeak



indarra ematen dizu ziegan egoteko. Soto del Real, Alcalá Meco, Avila, Curtis eta handik Soto del Realeko isolamendu modulura eramanez ninduten.

Bakardade handia sentitu duzu? Beraiek kriston apustua egiten dute presoak isolatuta mantentzeko, bai Euskal Herritik isolatuta mantentzeko, isolamendu politikoa eta baita gure arteko isolamendua mantentzeko. Baina kolektiboak hori gaindi-

tzen du, horren parte sentitzeak bakardade hori haustea lortzen du. Ni, zorionez, ez naiz bakarrik sentitu.

Zelan hartu zenuten bat batean aske geratu izana?

Oso egoera berezia izan zen, epaiketan geunden eta bagenekien martxoaren seian lau urteak betetzen genituela, eta hamabost egun aurretik konturatu ginen ez zeukatela astirik epaiketa amaitzeko. Fiskalak gure behin behineko kartzelaldia lau hilabetez luzatzeko eskaera egin zuen. Guk uste genuen onartuko zutela eta beraien asmoa gu ez kaleratzea zela. Baina heldu zen martxoaren laua, ostirala, eta esan ziguten epaileek ez zutela onartu fiskalaren eskaera, beraz, kalera gindoazela eta egun horretan bertan. Pezeratik irten behar izan genuen eta kristalaren beste aldera pasatu ginen, jendea han utzita. Momentu oso gogor eta hunkigarria izan zen. Bost segundotan banandu behar izan ginen.


Zortzi galdera labur

Mendia ala itsasoa: Itsasoa
 Film bat: Tarantinoren Kill Bill
 Liburu bat: Nekane Juradoren "Aún en las tinieblas le sonrío a la vida"
 Janari bat: Txuleta, patata frijitu eta piperrekin

Abesti bat: Abesti herrikoiak
 Leku bat: Lekeitioko tala
 Amesgaizto bat: Bakardadea
 Amets bat: Euskal Herriaren askatasuna eta amnistia

bertan

Zer egin behar du gazte jendeak pisu bat erosteko?




JOSU (SANTUTXU)
 EZIN DA. EZ DAUKAGU LANIK, EZ DAUKAGU EZER. HORRELA EZIN DUGU EROSI EZ PISURIK, EZ KOTXERIK, EZ BESTE EZER ERE EZ.



JULEN (SANTUTXU)
 HOGEITA HAMAR URTERAKO ZORPETU HIPOTEKA BATEN BIDEZ. JAKINA, LAN ON BAT BEHAR DUZU, BESTELA EZIN DA.



ENEKO (SANTUTXU)
 ZORRETAN SARTU, PISUAK OSO GARESTIAK DIRA ETA. GAINERA, GURASOAK TARTEAN SARTU BEHAR DITUZU, HIPOTEKARAKO BERME GISA, ETA HORRELA HONDORATU EGITEN DITUZU, KAR, KAR, ZUREKIN DOAZ!



JON (TXURDINAGA)
 MIRARI BAT. ZORTE HANDIA ETA KONTAKTU ONAK EDUKI BEHAR DITUZU.

NATALIA (TXURDINAGA)
 LOTERIA BAT DA. BESTELA, DIRU ASKO EDUKI EZEAN, EZIN

DUZU EZER LORTU. GAINERA, PISU GUTXI DAGO ETA SALGAI DAGOENA GARESTIEGIA DA. SOLDATA ON BAT EZ DA NAHIKO.



GOIURI (SANTUTXU)
 DIRUA EUKI EZKERO POSIBLE DA. ZER EGIN BEHAR DAN? AURREZTU. ZORTEA BALDIN BADU ETA BABES OFIZIALEKO ETXE BAT LORTZEN BADU, EDERTO. BESTELA, GEHIAGO AURREZTU. HORI DA ASUNTUA.



BEGOÑA (SANTUTXU)
 EZINEZKOA EZ DA EZER, BAINA HORI GATXA DA, OSO. SOLDATA BIREKIN, EGIN LITEKE. PISUAREN ARABERA ETA SOLDATAREN ARABERA.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Langaran, Pau Casals eta Larratundu kaleen arteko urbanizazio lanak amaitu ditu Bilboko Udalak

Bilboko Udalak amaitutzat jo ditu Langaran, Pau Casals eta Larratundu kaleen arteko eremuaren urbanizazio lanak. Horixe dugu bigarren fase honetan Otxarkoagako lehenengo sektorea prozesu hori bukatu egin dituen. Auzoko beste bazterrak datorren hilean eta urrian egongo dira prest.

Otxarkoagako urbanizazio lanak orain hamahiru urte hasi ziren. Artean auzoko bazter asko urbanizatu barik zuden. Orain bigarren fasean gaude eta auzoko hiru alderdietako orubeak dira helburuak. Hiruretatik lehenengoa Langaran, Casals eta Larratundu kaleen artekoa izan da. Obra horiek 2003ko otsailean hasi ziren. Etxeen arteko eremu guztiak aparkaleku, oinezko esparru edo berdegune gisa atondu dituzte.

Zati horretako obren aurrekontua 6 milioi eurokoa izan da. Denetara, 5.550 metro koadro aparkaleku gisa urbanizatu dituzte. Horiekin 301 leku sortu dituzte. Berdegunek 9.655 metro koadroko azalera daukate eta oinezkoentzako eremuek 12.315 metro koadro.



plaza berri bat sortu da, Otxarkoagako alderdi horretako bihotza izango ei dena. Plaza horretan alde bi nabarmendu dute. Alderdi bat librea eta bestea umeentzako jokoentzat erreserbatuta.

Obra hauek egiterakoan hesi arkitektoniko guztiak ezabatu dituzte. Bide batez, zerbitzuetako sare guztiak zaharberritu dituzte: saneamendu, urak, telefono,... Gainera, airetik joaten zirenak lur azpitik sartu dituzte. Azkenik, arbolak eta belarra ere ipini dituzte bazter askotan. Datozen hilabeteotan Cespa enpresak erein egingo du eta ureztatze automatikorako sistema jarriko du.

Denetara, Otxarkoagako urbanizazioa 28 milioi euroko inbertsioa eskatu dio Bilboko Udalarari. Orain arte 13 milioi euro gastatu dituzte baina beste sektore biak amaitutakoan halako bi izango da gastu osoa.

Plan osoari amaiera emateko azken sektorearen urbanizazioa baino ez da falta. Alderdi horrek beste lau milioi euro gehiago beharko ditu, orubeen desjabetzeen kostez gain.



PLAZA BERRIA

Horrez gain, Larrakoetxe bidea desagerrarazi dute. Bide horrek sigi-sagan egiten zuen gorantz etxebizitzaren blokeen artean. Urbanizazio lanen ondorioz,

Santutxuko 60 gazte auzipetu dituzte azken hilabeteotan

Sorgintxuloren aldeko mobilizazioetan parte hartzea leporatzen diete

Martxoan Sorgintxuloko hainbat kide epaitu dituzte gaztetxearen aldeko mobilizazio eta protestetan parte hartu izanagatik. Denetara, 60 gazte inguru daude epaiketaren edo epaiaren zain eta egoera horren aurrean euren kezka azaldu dute gaztetxeek. Sorgintxulo galdu eta gero, orain gazteek epaiketa andana bati aurre egin beharko diote. Gazteek Bilboko Udalarari leporatu diote erantzukizuna.

Testua: **Eneritz Ibarrondo**

Martxoaren 4ean, inauteri egunean gaztetxe berria izango zena okupateagatik identifikatutako 33 gazteetara joan behar izan zuten. Bertan ez zuten deklaratu, izan ere, epaiketa aurrerago izango da eta bitartean ez deklaratzeko erabaki zuten.

Martxoaren 8an gazte bat epaitu zuten, Sorgintxulo hustu zutenean, abenduaren 16an, argazkiak egiten ibili zelako. Fiskalak 120 euroko isuna eskatu du, eta epaiaren zain daude orain.

Martxoaren 16an beste sei gazteen kontrako epaiketa egin zuten, urtarrilaren 5ean, Sorgintxuloren urteurrenean, hustutako gaztetxera berriro sartu izanagatik. Hauek ere aurrerago izango dute epaiketa, beraz epaitegian aurkeztu bai, baina ez zuten deklaratu.

Azkenik, urtarrilean 28 gazte epaitu behar zituzten urriaren 17an Sorgintxuloren kontrako erasoak salatzeke Bilboko Udaletxea modu sinboliko eta bake-tsuan okupatu izanagatik. Bertan identifikatutako adin txikikoak, gurasoekin batera zerbitzu psikosozialetara



joatera behartu zituzten. Gainera, koei, berriz, falta epaiketa izan behar zena atzeratu egin zieten, fiskalak delitu moduan epaitzea eskatu zuelako. Hurrengo hilabeteetan izango dute epaiketa.

SALAKETA

Guzti honen aurrean Sorgintxulokoek Bilboko Udalararen jarrera salatu nahi izan dute. "Justifikazio

moduan Udalak usurpazioa, ordena publikoa eta antzerako hitzak erabiltzen ditu", esan dute gazteek. Gaztetxearen ustetan, berriz, euren sei urtetan zehar egindako lana auzoaren eskaera historikoei erantzun egin die. Bertan auzoari eskainitako proiektu ugari sortu dituzte, eta auzoari bizia eman diote. "Interes politikoengatik guzti honekin amaitzea izan da", esan dute Sorgintxulokoek, "Udalak gazteok botatzeko izan duen helburu bakarra".

Horrela, guzti honen aurrean gazteek argi utzi nahi izan dute euren lana ez dela delitua, eta erasoak eraso eta epaiketak epaiketa, borrokan jarraituko dutela, sinesten duten jendarte eredu baten alde.

APIRILA	
Tenerife	385 Euro
Lanzarote	394 Euro
Mallorca	286 Euro
Menorca	396 Euro
Ibiza	370 Euro

Izargi Bidaiak
Iturrigaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax. 94 412 07 26
48004 SANTUTXU - BILBO

★
KAIKU
Munduko Herrien Etxea
Ansuaga 1 Santutxu

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
JURIDICO - MERCANTIL

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

BERRIAK

BERRIAK




SANTUTXUKO ARGAZKI ZAHARRAK.-

Jose Landaren bildumatik ale batzuk hautatu eta ikusgai jarri ditu Santutxuko Merkatarien Elkartek. Lehenengo, dendetan paratu zituzten. Geroago, Begoñako Auzo Etxeko areto baten erakusketa prestatu zuten. Inaugurazioan, Landa eta bere familia omendu zituzten.

MORAZA PLAZA OINEZKOENTZAT IZANGO DA.-

Hilabete bi barru hasiko ei ditu Bilboko Udalak Matikoko Moraza plaza berritze-lanak. Espazio guztia oinezkoentzat izango da, baina garajeetarako sarbideak utziko dituzte. Sei hilabeteko lanak eta 347.000 euro beharko dira.



KAINUETAKO PASEALEKUA.-

Ibilbide historiko hori erabilgarri dago. Urte asko galduta eman ostean, ibai gaineko pasealeku polit gisa atondu dute atzera be. Apur bat beharago, Eusko Trenen geltokia dauka. Sarbidea, Miraflores etorbidearen behealdean.

PAU CASALS ETA ORNILLA KALEEN KANTOIA.-

Alderdi hori itxuraldatzeko asmoa dauka Bilboko Udalak. Orain, bien artean arbolak eta larretxo bat daude. Udal ardurdunek jakinarazi dutenez, autoek hiru geldialdi edukiko dituzte eta berdegunea bere horretan kontserbatuko dute "ahal den heinean".



KARMELON APARKALEKUA.-

Ez da txantxa Santutxun aparkatzeko dagoen arazoa. Horri konponbide bat emateko asmoz, Bilboko Udalak Karmelo kalearen azpian beste aparkaleku bat egiteko proiektua iragarri du. Urte akabuan hasiko ei dira lanak eta 300 leku edukiko ditu. Sarbideak Luis Luciano Bonaparte eta Enrike Ibarreta kaleetan zabalduko dituzte.

OTXARKOAGAKO GAUXORIA.-

Gautxori asko izango dira Otxarkoagan baina Bilbobusekoa, bakarra. Asteburuetako gauetako zerbitzu hori Julian Gaiarre kalera ere zabaldu dute. Geltoki berriak Julian Gaiarre 23, Julian Gaiarre 8 eta Txurdinagako kiroldegia izango dira. Artalandio-Ornilla kantoikoa, ostera, kendu dute.



BERRIKARRIAK


BERRIKARRIAK

EUSKARAREN ASTEAREN BOSGARREN EDIZIOA, IRUDIETAN

Euskararen Asteak Santutxu eta Txurdinagako ikastetxe eta plazak euskaraz busti ditu martxoaren 13 eta 20a bitartean. Hamalau ikastetxe eta makina bat herri elkarte batu dira umek eta gaztetxoek euskaraz egin dezaten errazteko. Erantzuna polita izan da. Argazkiok, lekuko.

Argazkiak: Txema Camara

KORRIKA TXIKIAN TIPI-TAPA, TIPI-TAPA.-
Karmelo kaletik egin zuten Santutxuko umek euren korrika txikia. Geldiro-geldiro, presa barik, euren jarraitzeko moduko erritmoan.




GEU BE, KARRAN EGITEKO PREST.-
Txikerrenak gara, eta zer? Geu be Korrikan egiteko prest gagoz. Horixe pentsatuko ote zuten?




LASTERKA EGIN ETA GERO, SARIA.-
Eskolako neska-mutikoak Karmelo plazan batu ziren eta pailazoen ikuskizunaz gozatu ziren.

EUSKAL KULTURAREN JOKOA.-
Arratsaldean hainbeste joko egiteko aukera eduki zuten gaztetxoek. Euskal kulturaren jokoa, berbarako, baina mahai baten gainean barik, plaza betean.



GLOBO SALTSA.-
Ume eta gaztetxoak ez ezik, helduak ere hurbildu izan dira Euskararen Astea. Batzuek, globo eta guzti.



AEROBICAREN ARRAKASTA.-
Urtero lez, aerobic erakustaldia egin zuten. Irakasleari kasu itzela egiten zioten eta berehala plaza osoa dantzari paratu zuten.

BELDUR ESZENIKORIK EZ.-
Batzuk ezta burua galduta ere ez dira eszenatoki batera igoko. Beste asko, oster, beldur barik igotzen dira. Ondo pasatzeko egunak dira.

KANTU KANTARI.-
Anje Duhalderen laguntzaz euskal kantuak Santutxu auzoaz jabetu ziren. Karmelo plazan lehenengo eta gero beste alderdi batzuetan, hainbeste mahatsorrik erreperitorio osoa erreparatu zuten... tabernarik taberna.



EZKER ABERTZALEA

ZIBIL ETA ZABAL

aralar

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertón

Justiegune, Euskalgune
Aitziber Iruña
Iduna Taldea
Urtzi Urrutikoetxea
"Mugitzaileak gure ingurua dituzte konstituzioak"
Uztidazu lamina berria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertón
Miren Agur Meabe
"Euskal literaturan aniztasuna eta maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertón
Eladio Montiel, Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertón
Mikel Alvarez, mahatsorri bat Everesteko tontorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA bertón
Iñaki Agirre: "Badu noizbait zuzen jantziak esperantzak"

bertón

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digitu):

DOHAIN **DOHAIN**

Sinadura

MANDOIA (637 M.) ZARATAMO


Bilbotik Laudiorako bidean Arrigorriaga-Zaratamo zatitzen duen zubiko semaforotara heltzean, ezkerretara sartuko gara (Moiordin auzoa). Han bide bi ditugu. Eskumaldera doana hartuta hiru bat kilometrotara harrobi bat igaro eta gero laster biragune batean basabide zabal bat irtetzen da eskumarantz, han utziko dugu kotxea (A) eta bertatik abiatuko gara.

Laster, bost minutu geroago, bitan zatitzen da pista hori eta guk ezkerretik eta gorantz doana hartuko dugu, ordu erdi batean lepo batera heldu arte (B). Handik ezkerretara Upo mendira joateko bidea dago; eskumaldera San Segismundo baselizarako eta Artanda mendirako. Baina guk aurrera ekingo diogu gure bideari zuzen doan basabidetik. Hamar minutu ingurura etxola baten aurrean aurkituko gara.

Hara heldu baino ehun metro (C) lehenago ezker aldean dagoen mendi muino batearantz joko dugu bidexka batetik, gaur egun pinudiz inguraturik dago eta pinuetan jarraitu behar ditugun margo gorritz egindako ikurrak ikus daitezke. Baina kontuz, pinuak betirako ez direnez eta pila bat basabide dagoenez kontuz ibili gero!

Ikuspegia ona bada, etxolara doan bidetik ezkerretara begiratzen badugu Mandoia mendia ikus daiteke azken puntan, eta horrek lagunduko digu norabidea ez galtzeko.

Aipatu dugun etxolatik ezkerretara joko dugu mendi muinoa gaingitu arte. Muinoan, basabide zabal batek ezkerretara jarraitzen du, muino hori bukatzerakoan basabideak beherantz jotzeko. Handik laster bi basabide ikusiko ditugunez (D), guk ezkerretara jarraituko dugu beste muino baten behealdetik joanez bidea eroso delarik. Hamar minututan, burdin ura darion iturri eder batean egongo gara. Aurrerantzean ez dago galtzerik mendi lepoa lortu arte. Han argi indarraren dorre (E) bat dago; bere



ondotik ezkerretara doan basabidea hartuko dugu eta metro gutxitarako eskumaldean gora doan beste basabide bat ikusiko dugu. Hura hartzen badugu zuzen eraman-go gaitu gailurrera, baina kontuz. Guk basabide hori, orain nahiko eroso, jarraitu beharko dugu aurrera, azkenik aldatzeko bat gaingitu ondoren erpin geodesiko eta txartel kutxa ikusi arte.

Igoera osoa bi ordutan egin daiteke.

Speseria PEDRO

IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Speseria
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL ARETI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

MESÓN GURETXE


Santutxuko poteo gunean

AITOR ZUBEROGOITIA

"PRENTSA ELEBIDUNEAN URTEAK AURRERA EGIN AHALA EUSKARA GUTXIAGO DAGO"

'Bidegorriak hizkuntzentzat' liburua plazaratu berri du Aitor Zuberogoitia. Bere doktorego tesia laburbildu du bertan. Prentsa elebidunaren bilakaera aztertu eta ondorio argi bat atera du: kale itsua da hori euskararentzat. Euskarak bere bideak urratu behar ditu eta urratzen ari da. Zuberogoitia markinarra da, Santutxun bizi da eta EHUn irakasle dabil. Berarekin liburu berriaz berbetan egon gara.

Testua: **H. Ortega** / Argazkiak: **BERTON**



Liburuak zure tesia laburbiltzen du. Zeintzuk dira zure ondorioak? Batez ere, prentsa elebiduna euskararentzat aho biko ezpata dela. Batetik gutxieneko presentzia segurtatzen du baina bestetik urteak joan urteak etorri euskarak ez du gora egiten. Kasu gehienetan, alderantziz, behera egiten du. Eta arlo kualitatiboan, gehienetan gai jakin batzuk jorrazera bideratzen da euskara: bertsolaritza, azokak, ... Azpian dago nahi bat: euskara hedabideetan azpikategoria izatetik unibertsoa izatera pasatzea. Deia kasua nahikoa argia da. Garai batean atalak ziren: ekonomia, kirola, politika, ... eta euskara. Euskara azpikategoria bat zen unibertso erdaldunean.

Prentsa elebiduna beraz bide antzia da euskararen garapenerako...

Kale itsua da, bai. Datu pare bat bakarrik: Deian 1977an euskara nagusi zen orrien %1ean. Handik hogeitau urtera, orrien %0,8an. Eta nola edo halako presentzia %17tik %5ra jaitsi zen epe horretan. Iparraldeko Ekaitza 1986an sortu zen. Orduan euskara nagusi zen orrien %18an. 2001ean, aldiz, %10ean baino ez. Baina ez da hori bakarrik. Euskara garrantzi gutxiko albisteak idazteko erabili izaten da.

Perspektiba kontu bat be bada, beraz. Euskaratik bertatik sortutako proiektuak behar dira...

Bai, hala da. Katalanek euren ekosistema komunikatibo propioa zaintzeko neurriak hartu dituzte. Adibidez, tokiko telebisten legea atera zutenean, baldintza batzuk jarri zituzten: %70 baino gehiago katalaneraz egin behar da, tokian tokiko edukiak sartu

behar zituzten... Horrekin kate handiei sarbidea eragotzi zieten eta lekuan lekuko komunikabide errotuak lortu zituzten. Hemen be antzerako zer edo zer beharko genuke. Zergatik Aldaketak ez du arrakastarik lortzen? Gaztelan egindako produktu baten kopia hutsaz nekez lortuko duzu erakarmen indarririk. Aldiz, Berriak edo tokiko prentsak zergatik lortu du? Gizartean errotutako proiektuak direlako eta gizarte horren berezitasunei erantzuten dietelako.

Eredu propio bat sortu dutelako...

Horrela eginda, plus bat eskaintzen duzu eta aukeratu egingo zaituzte. Baina kopia hutsa bazara, ez.

Ez ote dugu siniste gutxi eduki gure indarretan? Denbora asko eman dugu euskaratik eredu pro-

pioak sortu arte...

Beharbada bilakaera logikoa da. Baina bai, siniste gutxi egon da. Eta argi dagoena da, nahiz eta hutsetik hasi, bidea klabe horretan hasi ezkeror emaitzak lortzen direla. Iparraldean Radio Adour-Navarrek proposatzen zuen: lehenengo egingo dugu irratia aberzale bat, euskara ez delako gai gauza modernoek hitz egiteko, eta zati txiki bat baino ez dugu egingo euskaraz. Plan-teamendu horrekin haserre talde bat atera eta Gure Irratia sortu zuten, euskara hutsez. Gero domino efektua eragin zuten: Irulegi irratia eta Xibero-roko Boza sortu ziren... Gaur egun 25 langile daukate, hainbeste kolaboratzaile, estudio berriak zabaldu dituzte...



Euskalgintzan barneratuta dago prentsa elebiduna ez dela bidea. Hala ere, proiektu elebidun berriak agertzen segitu dira...

Bai. Zilegi da. Nik esaten dudana da logika hori euskararentzat kale itsua dela. Adibidez, orain Aztibegia irratia proiektua dago. Nik ez nuke txarto ikusiko hiru hizkuntzatan egindako irratia bat, baldin eta euskarari %70 eskaintzen bazaio.

Zelan ikusten duzu euskal prentsa gaur egun?

Prentsa idatzia nahikoa ondo. Tokian tokiko hedabideen sare zabala dago batetik eta bestetik, nazio mailan egunkari bat dauka, hiru astekari, beste astekari bat Iparraldean, eta hainbeste aldizkari espezializatu. Prentsa indizea ikusita, hau da, zenbat jende irakurri ahal duen euskaraz eta zenbatek irakurtzen duen, badago desfase bat baina maila nahikoa polita da. Irratia ere nahikoa zabaldu da. Zuloa telebistan dago. Hor dago konpondu gabeko arazo potoloa.

Euskal prentsa idatziaren arazoaren arriskurik handienak

zeintzuk izan daitezke?

'Le Monde Diplomatique'k urtarrean zioen mundu osoan prentsa idatziaren salmentek behera egin dutela. Zergatik? Alde batetik, blogak eta gisa horretako interneteko baliabideak. Jendeak zergatik informatzen da internetetik? Ohiko prentsa-sinesgarritasuna jaitsi delako, fusio handien ondorioz eta burtsan kotizatzearen ondorioz. Eta gero eskandalo asko piztu dira: Washington Post eta New York Timesek aitortu behar izan dute Irakeko gerraz gezurrak esan dituztela. Eta, azkenik, doako prentsaren gorakada izugarria gertatu da. Gure kasuan, sinesgarritasuna ez da arazo, baina interneten eta doako prentsa erdaldunaren kompetentzia bai.

Dena dela, interneten apustua ere egin behar du euskal prentsak...

Duda barik. Luistxo Fernandezek lehengoan esaten zuen internetek prentsarako aukerak asko zabaldu dituela. Adibidez, xake aldizkari bat ez da errentagarria euskaraz baina interneten egiten baduzu, bai. Paperean ez baina sarean bai. Sarean euskarazko prentsa espezializatu bat loratzeko baldintzak daude.



santutxuko iturriaga 96.
herriko taberna

Gosari bereziak:
Kafea + pintxo 1,50 €.

Euskal Herria
AURRERA!!

Dordoka

Pza. San Martín de la ascensión
SANTUTXU

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe

Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Korrikako azken egunean kilometro gehiago egin zenduan txosnarik txosna lekukoaren atzetik baino. Hori da marka gero!



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
San Mameseko gafea kendu zenduan Levanteren kontra. Zeugaitik ez balitz...



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Aste Santuko argazkiak erakutsiko dozuz? Uuiuiiiii! Jenteak burutik jota zagozala esango deutsu...



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Gixien itxaroten danean gertau egiten da. Igual gaur!



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Zirt edo zart egin behar dozu. Bikini operazinoa ezin da beluago hasi. Merezki dau? Horra hor galdera lodia.



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Umeak alboan eukitzeak bizipoza emon izaten dau. Baina larregi bez. Umeak beti ume, eta zeuk zeure adineko lagunak behar dozuz.



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Artzain ibili behar ei dozu mendirik mendi bakardadean ardiak zaintzen. Zeuretzat ez dakit baina guretzat... a ze bakea!



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Okilak arboletako enborrak lez, zeuk ondokoen buruak zulatzen dozuz behin eta barriro. Egon zaitetz isilik bost minutuz sikeran!



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Filosofia irakurtzen hasi ei zara. Guzurre! Lo hartzeko erabiltzen dozuz zuk pentsalari handien idatziak.



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Eguzkia bazterrok epeltzen hasi eta atoan joan zara hondartzara. Baina uretara sartu... horretarako ez dago presarik!



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Zenbat gara, lau, bat, hiru, bost, zazpiiii... Benito Lertxundiren kantuagaz akordatzen zara? Ba holantxe egongo zara hauteskunde gauean.



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Hil honetan be loteriagaz ez zara aberastuko. Behin bakarrik abisatuko deutsugu baina hurrengo zenbaki guztietarako balio jatzu. Abisata zagoz.

agenda

APIRILAK 1
BARRICADA. KONTZERTUA. KAFE
ANTZOKIA. 22:00ETAN.

APIRILAK 11
EUSKABARET. ANTZERKIA. KAFE
ANTZOKIA. 20:30EAN.

APIRILAK 12
KAPUTEN KANTA. ANTZERKIA. KAFE
ANTZOKIA. 20:30EAN.

APIRILAK 13
ZAZPI GEZUR TXIKI. ANTZERKIA. KAFE
ANTZOKIA. 20:30EAN.

APIRILAK 13
JOXE ARANZABAL. 'MEDIKUAK ESAN
DIT MINBIZIA DUDALA' LIBURUAREN
GAINEKO HITZALDIA. ARBIDEA KALE-
KO EUSKALTEGIAN. 20:00ETAN.
ASAPALA.

APIRILAK 14
KARIDADEKO BENTA. KAFE ANTZOKIA.
22:000ETAN.

APIRILAREN 15-23
KARMELO IKASTOLAREN 40 URTEMU-
GAREN OSPAKIZUNAK.

APIRILAK 16
EUSKAL ERROMERIA GAZTEDIREKIN
KARMELO PLAZAN. KARMELO IKASTO-
LAREN OSPAKIZUNAK.

APIRILAK 21
TXUMA MURUGARREN. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

APIRILAK 21
ANTZERKIA. 'EUSKARA SENZILOAREN
MANIFESTOA'. MIKEL MARTINEZ-
PATXO TELLERIA. KARMELO IKASTO-
LAREN OSPAKIZUNAK.

APIRILAK 22
PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK.
KARMELO IKASTOLAREN OSPAKIZU-
NAK.

APIRILAK 27
KARMELE JAI. 'HAMABOST ZAURI'
LIBURUAREN AURKEZPENA. ARBIDEA
KALEKO EUSKALTEGIAN. 20:00ETAN.
ASAPALAREN 'IRAKURLEAREN
TARTEA'.

APIRILAK 29
KANDIDO URANGA. 'HENRY BENGOA
INVENTARIUM'. BERBIE ETA ASAPALA-
REN ESKUTIK. SANTA MARTAN
(KARMELO IKASTOLA). 20:00ETAN.



oztopo guztien gainetik

ORAIN batasuna



ELORRIETA-ERREKA MARI
INSTITUTUA

BATXILERGOA
teknologikoa/humanistikoa
A eta D ereduak

HEZIKETA ZIKLOAK
goi eta erdi mailakoak
A eta D ereduak



ATEAK IREKITA

Batxilergoa (apirilaren 20an, 18:30etan)
Erdi mailako zikloak (apirilaren 21ean, 18:00etan)
Goi mailako zikloak (apirilaren 21ean, 19:00etan)



Matrikulazioa maiatzaren 1go hamabostaldian
Lehendakari Agirre 184 Tfnoa 94 4028000

www.elorrieta-errekamari.com